

## Ekimen bateratua: erakunde-adierazpena

### **EUSKARALDIAN PARTE HARTZEKO BORTZIRIETAKO ALKATEEN DEIA**

Nafarroan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago paratu behar dugula hizkuntza-berdintasuna bulkatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea dugu helburu, eta, horrenbertzez, horretara bideratutako urratsak egitea.

Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen segitzea, eta, era berean, beharrezkoa jotzen dugu hizkuntza gutituen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, Nafarroako Gobernuarekin eta bertze hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, martxan paratu dute Euskaraldia ekimena. Bortzirietako herriak ere buru-belarri sartu gara, eta herrietako eta Bortzirietako batzordeak lanean ari dira udaberriaz geroztik.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat egitera gonbidatuko ditugu herritarrak. 16 urtetik goitiko helduak arituko gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean paratuta. Batzuk *Ahobizi* izanen gara, bertzeak *Belarriprest*. Alkateok ere hartuko dugu gure papera.

*Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko diogu solaskideak euskaraz konprenitzen duen guztietan, eta, Belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta Belarriprestak berak euskaraz nahiz gaztelaniaz erantzun.*

Ekimenaren helburua hau da, bertzeak bertze: ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta biziaraztea hizkuntza-ohiturak euskararen erabileraren mesederako aldatzen ahal ditugula, eta, ahal dela, 11 egun horiek pasatu eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea, herrian bertan zein herritik kanpo.

Horregatik guziagatik, honako hau aurkezten dugu:

### **ERAKUNDE ADIERAZPENEA**

Bortzirietako alkateok, eskualdeko bortz udalen izenean, honakoa adierazten dugu:

#### **1) Euskaraldiarekin bat egiten dugu eta ekimenaren sustatzaile izanen gara. Hau da:**

- Herritarren ordezkari izanik, ekimenarekiko eredugarritasunez eta erantzukizunez jokatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Ahal bezainbarte *Ahobizi* eta *Belarriprest* aktibatzeke, ekimena zabaltzen lagunduko dugu udalen baitan zein udalerrian.

## Ekimen bateratua: erakunde-adierazpena

- Herritarrak Euskaraldian parte hartzerat gonbidatzen ditugu, eta izen ematea errazteko konpromisoa hartu.
- Ekimena arrakastatsua izan dadin, udalak eskualdeko eragileekin elkarlanean arituko dira.
- Euskaraldian abiatutako hizkuntza-praktikak herritarren artean errotu daitezen, udalek beren esku dauden neurriak hartuko dituzte.

### **2) Bertzalde, heldu den urriaren 7an, 12:00etan, Berako Merkatu Plazan egitekoa den ekitaldian parte hartzeko deia egiten diegu Bortzirietako herritar guziei.**

Ekitaldi horretan, bertzeak bertze, Bortzirietako Euskaraldiko 11 ordezkariak (Hamaikakoa) aurkeztuko dira eta bortz herrietako hainbat eragile ere izanen dira bertan.

Edozein modutan, hitzorduaren helburu nagusia herritarrak aktibatzea izanen da. Hain zuzen, ekitaldiaren bueltan, eskualdeko lehenbiziko 100 izen-emateak biltzea da erronka. Beraz, garrantzitsua da ahal bezainbertze herritar bertaratzea.

Lesaka, 2018/09/24

José Luis Etxegarai Andueza (Lesakako alkatea)

Mentxu Peña Lizarazu (Arantzako alkatea)

Josu Iratzoki Agirre (Berako alkatea)

Juankar Unanua Navarro (Igantziko alkatea)

Miguel Mari Irigoien Sanzberro (Etxalarko alkatea)